

2. BALIO PROPOSAMENA

Honako arazo edo beharrak konpondu nahiko genituzke:

- Zaborra sailkatu ez beharra, hots, **sailkapen automatikoa**.
- **Denbora aurreztea** zaborra sailkatzerakoan
- **Espazioa aurreztu**, hau da, hainbeste ontzi solte izan beharrean, denak batera eta sistema berarekin.

Zergatik erosi gure enpresan eta ez lehiakideen enpresan? Hau da, zerk bereizten gaitu gure lehiakideengandik?

- Alde batetik, zaborrontziak saltzen dituzten enpresak ugariak dira, baina merkatuan dauden guztiak ohiko zaborrontziak dira, hain justu, **automatizatuta** ez daudenak. Horietan, gehienetan, guk geuk sailkatu behar dugu zaborra horietan.
- Bestetik, **usainik kanporatzen ez** duten ontzi edo kuboak salduko genituzke. Askotan, merkatuan aurkitzen ditugun zaborrontziek usaina askatzen dute.
- Horrez gain, honakoa eskaintzen dugu:
 - **Tratu pertsonalizatua**
 - **Prezio onargarriak edo arrazoizkoak**
 - **Produktu eksklusiboak**
 - **Kalitatezko produktuak**
 - **Diseinu berritzaileak**
 - ❖ Sukalde berri eta modernoetara egokituta
 - ❖ Sukalde tradizionaleri egokituta


Zer erraztasun/abantaila eskaintzen dizkiegu bezeroei?

- Erosleak zakarrontziak **webgunearen bitartez** edo **denda fisikoan erosi** ditzake. Denda fisikoan erosiz gero, **fisikoki azertu** eta **xehetasunak ikusi** ahal izango dira.
- Webgunetik eskatuz gero, **3 egunetan etxean** izan ahalko luke .
- **Webgunearen bitartez jakin** ahalko da dendan produktuaren **stock-a** dagoen ala ez.
- Zabor mota konkretu batzuk soilik birziklatu nahi badira, **diseinu pertsonalizatuak** eskaintzeko aukera emango dugu.

- Tamaina ezberdinetako diseinuak eskainiko ditugu.

□ Diseinua

- Diseinua mota askotarikoa izan daiteke, bezeroaren **nahien** edo **premien araberakoa**. Hala ere, **modelo “estandar”** bat egongo da, jakina, merkeena izango dena.



- Zakarrontzia izan arren, **itxura dotoretsua** eta **garbia** izango du. Sinplea izango da, baina sinpletasunak ez dio dotoretasunik kenduko.
- Diseinua pertsonalizatua izango denez, bezeroak duen sukalde motaren araberakoa izango da. Hortaz, **egokituta** egongo da **bezero bakoitzaren sukaldera**.

□ Prezioa

- Oro har, **prezioa arrazoizkoa** izango da. Edonola ere, bezeroak diseinu **pertsonalizatua** eskatzen badu prezioa **garestiagoa** izango da.
- Diseinu **estandarraren prezioa merkeena** izango da, modelo sinpleena izango delako.